



VII. Kongresu Nafarroan: Nekazaritza nekazarion esku

Entrevista

Alberto Benito:
“Hay que estar
donde se decide lo
importante”

Sektoreak

El sector vitícola
de Rioja reclama
un precio justo
para las uvas



6	12	16	24
			
SAKONEAN · A FONDO Benito: “Hay que estar cerca de donde se decide lo importante”	HERRIAK Fermín Gorraiz y Patxiku Irisarri, elegidos presidente y secretario en Nafarroa	REPORTAJE Argazki Lehiaketa: ‘Funtsezkoak’ diren argazki ugari iritsi dira	EL SECTOR El sector vitícola de Rioja se une para reclamar un precio justo para las uvas

[BESTEEK ESANA · OPINIÓ · WEB]

“Sortzaileak gara eta sortuko dugu”

8

·MENTXU ARREGI

[ZER BERRI · ES NOTICIA]

Arbonako okupazioa urriaren 24ra arte luzatuko dute

9

Erraustegiaren kontrako manifestazioa egin dute irailaren bigarren igandea

10

[HERRIAK]

Segurako Ondarre gaztandegiko gazta izan da onena Ordizian

11

Entra en vigor la obligatoriedad de los certificados digitales para personas jurídicas

15

[SEKTOREA · EL SECTOR]

[2]

Sagastietan loraldia luzea izan da eta sagar asko eta kalitatezkoa espero da

20

Protesta de ganaderos de EHNE-Nafarroa por el elevado incremento de los insumos

21

Las OPAs acusan al Gobierno de condenar a la ganadería extensiva a su extinción

23

Éxito de afluencia de público en la fiesta del 25 aniversario del CPAEN/NNPEK

25

[ZERBITZUAK · SERVICIOS]

28

ardatza

[591

Una publicación de EHNE
DL: VI382-1982Erredakzio batzordea:
Imanol Ibero,
Garikoitz Nazabal eta Jabi TorreKazetariak:
Blanca Sanchez, Natxo Matxin
eta Lorea MuguruzaHarpidetzak
(suscripciones):
(945) 27 54 77
ardatza@ehne.eusEdita: Lurkoi S.L.
Diseño:
www.vinaixa.bizImpresión: Gertu.
Distribución: Gertu

E-mail: ardatza@ehne.eus

Publicidad:
Laura Paris
publi@ehne.eus**ehne**
euskal herriko
nekazarien elkartasuna

EDITORIALA

ERUPZIOA ETA SUMINDURA

“Lehen sektorea protesta egiteko kalera irten da urte mordoxka bat izoztuta daraman prezio-politika aldatu beharra ikusten baitu”

“Gure eguneroko ahaleginak bidezkoa den konpentsazio ekonomikoa behar du”

La Palmako sumendiaren ondorioa pairatzen ari diren gure artzain eta platano ekoizle lagunak gaizki pasatzen ari dira eta gure elkartasun osoa dute. Alegoria bulkanologikoa baimentzen bazaigu, gure aldetik ere erupzio bat gertatzen ari da, baina sumindura erupzioa kasu honetan. Lehen sektorea, arrazoi osoz, protesta egiteko kalera irten da urte mordoxka bat izoztuta daraman prezio-politika aldatu beharra ikusten baitu; ekoizleek beste agente batzuk ikusten baitutuzte erosketa otarraren prezio igoeraren bidez beren marjinak eta irabaziak handitzen, elikagaiak sortzen dituztenak estutzen dituzten bitartean. Horri kostuen igoera esponentziala gehitzen badiogu, pentsuena, erre-gaiena eta elektrizitatearena besteak beste, ulergarria da ustiatetik kon-tuek ez ematea. Familia-ustiategi

askok jasotzen dituzten diru laguntzengatik bizirauten dute eta hori ez dugu gertatzerik nahi. Gure eguneroko ahaleginak bidezkoa den konpentsazio ekonomikoa behar du, beste ekoizpen sektoreekin gertatzen den bezala, eta ez du gehiegizko desfaserik egon behar elikagaigintza prozesuko eragile desberdinen artean.

Nazkatuta gaude aplikatzen ez den guzti horri buruzko gehiegizko araudiarekin, baliorik gabeko paper gisa gelditzen baita. Eta suminduta ikusten dugu, halaber, guri eragiten diguten beste gai batzuetan, eta iritzirik eskatzen ez digutenetan, Gobernuak abiada bizian berehalako erabakiak hartzen dituela. Elikadura Katearen Legea Otsoa babestutako espezieen zerrenda sartu den abiadura berdinean martxan jarriko balitz, beste kontu baten aurrean geundeki.

ERUPCIÓN DE INDIGNACIÓN

Ahora que nuestras compañeras y compañeros cabreros y plataneros, con los que nos solidarizamos, lo están pasando mal como consecuencia del volcán de La Palma, si se nos permite la alegoría vulcanológica, por nuestros lares también se está produciendo una erupción, pero en este caso de indignación. El sector primario se ha echado a la calle para protestar con toda la razón del mundo por una política de precios que lleva prácticamente congelada desde hace varios años, mientras los productores ven cómo otros agentes de la cadena alimenticia ven engrosar sus márgenes y beneficios a costa de incrementar la cesta de la compra y apretar las clavijas a quienes generan los alimentos que la nutren. Si a ello le sumamos el aumento exponencial de los costes, hablamos de piensos, combustibles y electricidad entre otros insumos, pues es lógico que las cuentas no salgan. Muchas

explotaciones familiares se sostienen por las ayudas que reciben y eso es algo que no queremos. Lo que queremos es que nuestro esfuerzo diario se vea correspondido con una compensación económica lo más justa posible, al igual que sucede en otros sectores productivos, y que no haya desfases sangrantes entre los diferentes actores del proceso alimentario.

Estamos hartos de que haya una ingente reglamentación legislativa al respecto, pero que no termine de aplicarse, como si de papel mojado se tratase. Y vemos también con indignación que en otros temas que nos afectan, y en los que ni siquiera nos piden opinión, sí que se articulan instrumentos para poner en marcha de manera inmediata decisiones gubernamentales. Si la aplicación de la Ley de la Cadena Alimentaria se hiciese a la misma velocidad que la inclusión del lobo como especie protegida, otro gallo nos cantarí.

EDITORIAL

[3]

“El sector primario se ha echado a la calle para protestar por una política de precios congelada desde hace ya varios años”

“Queremos que nuestro esfuerzo diario se vea correspondido con una compensación económica justa”



Baserritik zuretzat



FROGA

Oraingoz urtebetea frogatzen gisa ariko da baserritar eta merkataritza txiki kopuru bat 'Baserritik zuretzat, Zentzuko merkataritza' proiektuaren bideragarritasuna probatzeko besteak beste. "Teorian egin dugun banaketa errealitatean jasagarria den frogatu behar dugu edo aldaketaren bat eginda gauzatzeko modukoa den. Ez hori bakarrik, operadore guztiekin hitzartutakoa betetze maila egokia duen ere neurtu beharko dugu, hau da, errentagarria den etapa guztietan. Horrez gain, ziurrenik zuzenketak egitea ere suertatuko da eta non egin, nola egin aztertuko balioko du urtebete honek", adierazi dute. Hein berean, jendarteak 'Baserritik zuretzat, Zentzuko merkataritza' proiektuari zein harrera egiten dion ikustea ere gakoa izango da proiektuaren etorkizunerako: "Jendarteak proiektua bere egitea lortzen badugu, hau da, bertako produktuen aldeko ekimen gisa ulertzen badu eta erosteko ohitura hartzen badu, proiektuarekin aurrera egiteko bultzada emango digu".

ETORKIZUNA

"Baserritik Zuretzat, Zentzuko Merkataritza" ekimenak lehengo pausoa izan nahi du erreferente izateko. Bertako ekoizle txikien produktu salmenta gune nagusi bilakatu nahi ditu herrietako salmenta gune eta komertzio txikiak. Bi agenteen etorkizuna bermatu nahi dugu gaur egungo erronka nagusiei aurre eginez eta merkatuaren nahiak asetzuz". Froga pilotutik haratago, etorkizunean ekoizle eta saltzaile sarea Gipuzkoa osora zabaltzea da ekimenaren helburua.

hauetan bertakoak diren produktuak aurkitzeko arazoak egon litezke. Bertako produktuen eskaintza anitza eta bateratua duen merkaturatzaile gutxi dagoelako. Gure helburua katea osatzen duten elementu guztiak onuradunak izatea da: baserritarra, dendaria eta eroslea". Aipatu baserritar eta merkataritza txikien sarea elkarlanaren bidez, soziala, ingurumenarekin errespetuz jokatzeko duena, berritzailea eta inguruko sare sozioekonomikoa indartuko duena bultzatu nahi dute. Era berean, zehaztu dute 'Baserritik zuretzat' zigilua daramaten produktu guztiak Gipuzkoako Landa eremuko baserrietan ekoiztutakoak direla. Produktu freskoak nahiz transformatuak aurkituko ditu kontsumitzaileak proiektu

El objetivo es que todos los elementos que componen la cadena sean beneficiarios

tu honetan parte hartzen duten merkatarien dendatan: barazkiak, esnekiak, edariak, janari kontserrak.... Proiektuarekin herrietako merkataritza txikien sarea bermatzea da, baita Gipuzkoako baserritarren etorkizuna eta bideragarritasun ekonomikoa sustatzea ere. Horrez gain, hurrengo belaunaldientzako zaindutako landa eremua uzteko xedez hasi dira lanean: "Baserrikoa, dendatik, eroslearentzat, herriarekin".

Baserritik zuretzat, zentzuko merkataritza'. Mezu hori daramaten produktuak topatuko ditu aurki Gipuzkoako harategi eta denda txikietan kontsumitzaileak.

'Baserritik zuretzat, zentzuko merkataritza' proiektua Covid-19ak sortutako pandemiak areagotutako behar bati erantzuteko asmoz jaio da. "Janari eta edari ekoizle eta herrietako salmenta gune txikien elkarlanetik jaio da", Gipuzkoako EHNERen baitako baserritarren eta Edertoren arteko elkarlanari esker hasiko da lehen urratsak ematen urriaren hasieran, hain zuzen. "Merkatuan balio katea desorekatua dagoenez, salmenta kanal bidezkoagoa garatu nahi dugu. Partaide guztien artean adostuko dugu balio katea, izan ere, batzuetan, hirugarren banatzaile bidezko banaketak errentagarritasun baxua ekar dakioke ekoizleari, hau ekoizteko ekoizle askok distribuzioa bere gain hartu dute. Gerta daiteke, ekonomikoki sarrerak handiagoak izan arren, logistika eta banaketa kostuek zati handia kentzea errentari, norbanakoak inbertitu beharreko denboraz gain. Horrelako egoeran topa daitekeen ekoizleak alternatiba gisa izan dezake ekimen hau" azaldu dute proiektuaren sustatzaileek. Era berean, bertako produktuen eskaintza bateratua kudeatuko duen eragilearen hutsunea beteko du proiektuak: "Especializatutako komertzio txiki

“Elkartasunezko argia bihurtu da”

Hernaniko Arriatzu baserriko Ane Zeberio laugarren gama egiteko bideratutako barazkiak ekoiztu eta prestatzen ditu eta ‘Baserritik zuretzat, Zentzuzko merkataritza’ proiektuan parte hartuko du.

Zerk erakarri zaituzte proiektu honetatik?

Alde batetik, baserritar dezente elkartu izanak helburu berdinarekin: gure produktua ahalik eta preziorik bidezkoenarekin saltzeko. Behingoz, elkartu gara eta itxurazkoa den zerbait egin dugu, gure produktuak merkatuan saltzeko. Ez daukagu zertan indibidualki jokatu, taldean babes handiagoa dugu.

Zein onura ekarriko dizkizue?

Guri onura ekarriko digu, orain arte ez garelako proiektua gauzatuko den eremuraino iritsi. Ezagutzera emateko oso baliagarria izango da. Balio erantsia du gainera, ez goaze-



IRUDIAN, ZEBERIO AHIZPAK

la bakarrik, gure produktuarekin batera beste hamaika produktu ezberdin doaz. Oso interesgarria da proiektua.

Horrelako ekimen baten beharra sumatzen zenuten?

Bai. Gu orain arte ongi moldatu gara, baina oso positiboa den proiektua da. Elkartasunezko argia bihurtu da baserritarren produktuen alde.

Zein etorkizun aurreikusten diozu?

Etorkizun polita. Ez du emaitza azkarrik emango, pixkanaka iritsiko da, baina funtzionatzen badu, herri guztietan martxan jartzeko moduko ekimena izango da. Izan ere, oso proiektu gutxi ezagutzen ditut baserritarrei bere produktuaren prezioa regateatzen ez zaiona eta errespetuz tratatzen zaiona. Proiektuaren oinarria zentzuzko merkataritzan dago.

“Zentzuzko merkataritza nahi dugu”

Ederto elkarteko presidentea da Jesus Odriozola. Gipuzkoako EHNErekin batera, ‘Baserritik zuretzat, Zentzuzko Merkataritza’ ekimenaren sustatzailea da. Baserritarrek eta harakinek errezeloz begiratu izan diotela elkarri esan du Odriozolak, baina elkarren aliatu gisa funtzionatu behar dugula nabarmendu du.

Zergatik erabaki zenuten ekimenean parte hartzea eta sustatzea?

Bakoitzari tokatzen zaizkion marjina, esfortzua eginez, bidezkoa den merkataritza sortzeak erakarri ginen, denen artean adostuta aritzeak egiten du erakargarri proiektua. Apustua belaunaldi berriek baserriko produktua, bertakoa, dendan ikus dezaten eta zer den jakin dezaten ahalgina egitea da.

Zein onura ekarriko dizkizue?

Bertako produktuen eskaintza zaba-



JESUS ODRIOZOLA OÑATIN DUEN HARATEGIAN

lagoa egiteko aukera emango digu. Komertzialak egunero etortzen dira edonongo produktuekin baina beraiek beren marjina ezartzen diete produktu horiei, eta horrek estutzen gaituzte denok. Baina proiektu honekin zentzuzko merkataritza bideratu nahi dugu, kate guztiko eragile guztiek bizitzeko moduko marjinak ateratzea denen artean

adostuta.

Zein etorkizun ikusten diozu?

Sentimentu pixka bat dutenek eta nahi dutenek proiektu oso polita ikusiko dute. Beharrezkoa den proiektua da, bertako produktua ezagutu behar dute belaunaldi berriek eta horrela apreziatuko dute.



Alberto Benito

CANDIDATO DE EHNE-KONFEDERAZIOA A LA EJECUTIVA DE COAG

Por qué EHNE-Konfederazioa se presenta a la Ejecutiva de COAG?

Por los motivos que fuesen, desde hace más de 15 años, EHNE-Konfederazioa no goza de representación en COAG y consideramos que ya es momento de variar esta situación, tal y como nos lo está demandando nuestra afiliación. Creemos que es muy importante estar cerca de donde se toman las decisiones agrario-políticas más importantes, aquéllas que vienen de Europa y también las que proceden del Ministerio. Entendemos que nuestro punto de vista y nuestra voz se debe oír en COAG, que Madrid y Bruselas conozcan nuestros planteamientos. A partir de ahí, se toma la decisión en EHNE-Konfederazioa de presentar

“ Madrid y Bruselas deben conocer nuestros planteamientos ”

un candidato con experiencia e ilusión, responsabilidad que he aceptado con muchísimo orgullo, dado que durante estos últimos años ya he participado, representando a EHNE, en las asambleas de COAG.

[6]

¿Qué iniciativas e ideas se pretenden transmitir a nivel estatal?

Bien sea a nivel estatal, provincial o local, lo realmente importante es que debemos priorizar la defensa y protección de las explotaciones familiares, agricultores y ganaderos que transmiten su trabajo de generación en generación. Un modelo agrícola-ganadero que está desapareciendo por la presión y concentración de nuestro trabajo en manos de grandes empresas y fondos de inversión que nos están desplazando. A esa diabólica dinámica contribuye una PAC que nos está llevando por caminos equivocados y eso hay que denunciarlo. A la sociedad y a nuestros gobernantes les debe llegar un claro mensaje de que no se están haciendo bien las cosas.



“ Hay que estar donde se toman decisiones agrarias más importantes ”



El Perfil

Estudió Químicas en la Universidad de Donostia y trabajó durante un tiempo como asesor en una consultoría medioambiental. Decidió hace dos décadas continuar con la tradición hortícola y vitícola de su familia. Actualmente, es propietario de una explotación de frutales -manzanos y perales-, que combina también con viñedos, y vive a caballo entre Sartaguda y Madrid.

Haber participado durante cinco años en las asambleas de COAG parece un aval lo suficientemente importante como para optar a un hueco en su Ejecutiva...

Desde la dirección actual de la propia COAG se nos hizo saber que veían como muy necesario que hubiese una renovación en dicho órgano rector. Es cierto que quienes están ahí, llevan muchos años en el cargo y se necesita un relevo, gente con nuevas ideas, fuerza e ilusión. EHNE, además, siempre ha sido dinámica y plural, se han rotado y renovado los cargos de representación, una filosofía que también debe ser aplicable a COAG. Es cierto que vivimos unos tiempos, tanto por la pandemia como por la cada vez mayor carga de trabajo en nuestras explotaciones, en los que cuesta tomar la decisión de dar un paso adelante y emplear parte de nuestro tiempo a la dedicación sindical. Sin embargo, es imprescindible que lo hagamos si queremos que las cosas mejoren y que nuestras reivindicaciones se puedan vehicular hacia los organismos que toman las decisiones.

“Tenemos que emplear parte de nuestro tiempo a la dedicación sindical”

En este sentido, ¿qué aspectos se deberían mejorar en el funcionamiento de la

[7]

Ejecutiva de COAG?

Pues hay dos aspectos que nos parecen de vital importancia. El primero se refiere a la agilidad a la hora de la toma de decisiones. En no pocas ocasiones, la burocratización de COAG, con un gran número de provincias y sus respectivos sectores, ralentiza el proceso, que también intenta con-

tentar a la mayoría de las partes implicadas. El segundo tiene que ver con la necesidad de que en el sindicato

tengan más peso los jóvenes. Es necesario dejarles paso, pues la gran mayoría de las personas que ocupan los cargos de COAG ya superan los 60 años de edad.

“Mayor presencia de los jóvenes y las decisiones deben ser más ágiles”

**cerca de
n las
rio-políticas
es”**





SORTZAILEAK GARA ETA SORTUKO DUGU



Iritzi artikuluak
Cartas de opinión

[8]

Manifestazioak, elkarretaratzek, traktoreak, oihuak, baserritarak, saltoki handiak, inbertsio fondo erraldoiak... Nazkatuta gaude denok! Baina kokoteraino egonagatik ere ezin diogu etsipenari bide eman.

Badago lehen sektoreari buruz idazten duen bat, eta lehen sektoreko kontuei buruz gobernuei iradokizunak egiten dizkien beste bat haserretik sormena sortu behar dela dioena eta, une honetan, baserritarrok hortxe gaudela iruditzen zait. Izan ere, begietan dolarraren ikurra ikusten zaien merkataria eta inbertsiogile horien aurrean zenbaki bat besterik ez bagara ere, oinarritzko, funtsezko produktuen sortzaile gara.

Barazkiak ekoizteko gai bagara, haragia, eztia, egurra... horiei guztiei forma eman eta gure herrikideei eskaintzeko gai bagara, mendeetan zehar sistema bat edo beste bat izan irauteko gai izan bagara, ez al diogu orain erronka honi eutsiko eta gure izaera sortzailearen bidez irtenbidea bilatuko?

Bizia sortzen dugu. Biziarekin bizi gara, eta biziaren zikloa zaintzen dugu. Aire eta ura garbi mantentzeko gai gara gure basoen

kudeaketarekin. Elikagai osasuntsuak ekoizten ditugu herrikideen osasuna zaintzen dugu. Edertasuna sortzen dugu hormigoitik begiak atera nahi dituen orontzat.

Beti izan ditugu ondoan, gure lanean lagundu digutenak. Euria, zorroak, eguzkia, hodeiak, ximaurra, belarra eta landareak, auzolanean auzokoak... Taldean aritu gara denon artean bertako produktuak prestatzen, ekoizten hazten... azken finean, sortzen. Beraz, hel diezaigun honi ere taldean, elkarrekin. Soberan erakutsi dugu irtenbide sortzaileak emateko gai garela!

Agerikoa dena da, bederen, ezin garela betiko formuletan aritu, izan ere, betiko formulek beti emaitza berdina dakarte. Albert Einsteinek esan zuen: "Emaitza desberdin bat bilatu nahi baduzu, ez egin betiko berdina". Esaerak ematen du zer pentsatua. Argi berri bat pizten du barruan, itxaropenez betea, umoretsua, ederra, eta zoriontasunez betetzen duena: sortzaileak gara eta gure sormen gaitasunarekin erronka berri hauei eutsiko diegu!


Firma: Mentxu Arregi

Web & Lectura



www.ehne.eus

EHNE Konfederazioaren webgunean lehen sektoreko erreferentzia den sindikatuari eta askotariko jarduerari buruzko informazioa jaso daiteke: nekazaritza, abeltzaintza, ingurumena, herriak, azpiegiturak, merkatua... Nahi adina informazio zure eskura.



EHNE sare sozialetan. Asko

dira sindikatuko kide ez izan eta EHNEren aktualitatea sare sozialen bitartez jarraitzen duten kideak. Milaka jarraitzaile ditu EHNEk honako sareetan: www.facebook.com/PrentsaEHNE orrian. Twitterreko [@Ehnesindikatua](https://twitter.com/Ehnesindikatua) perfila



IRUDIAN, BERRUETA BIDEKO ARBONAKO LURRAK LABORANTZARAKO IZAN DAITEZEN PROTESTA EGITEN. IRUDIA: BERRIA

Arbonako okupazioa urriaren 24ra arte luzatuko dute

Berrueta eremuko lurren okupazioari amaiera emateko Lurrama azoka bertan egingo dute

Arbonako Berrueta eremuko lurren okupazioarekin urriaren 24ra arte jarraitzea erabaki dute Lurzaindiako kideek, baita ELB sindikatukoek ere. Gauzak horrela 120 egun burutu arte luzatuko dute protesta ekimena. Dena den, ez da hori egin duten jaki-

Han conseguido paralizar la venta de las tierras del área de Berrueta en Arbona

narazpen bakarra, izan ere, Lurrama Azoka ere Arbonan egingo dutela iragarri dute: “Lurrama azoka Arbonara eramateak logika osoa du, finean Arbonako ekimenak laborantza babesteko gogoia erakutsi duelako batia kostaldean ere”.

Lurrama Elkarateak ere iragarpena baliatuz adierazpenak egin ditu: “Arbonako borroka horretan eraman diren gogoetak Miarritzen udazken

Miembros de Lurzaindia, así como del sindicato ELB, han decidido continuar hasta el 24 de octubre con la ocupación de los terrenos del área de Berrueta de Arbona. Asimismo han anunciado que la Feria Lurrama se celebrará en Arbona.

gutziz plazaratzen diren eztabaidak eta funtsezko galderak dira: ama lurraren defenditzen beharra, elikadura burujabetza, klimaren desfioei aurre egiteko hurbileko laborantza elikatzaile baten mantentzea eta tokiko politika iraunkor eta eraginkorren bultzatzea”.

SALMENTA, BERTAN BEHERA

Hein berean, ELB eta Lurzaindiako kideek protestari esker salmenta espekulatiboa oztopatzea lortu

dutela nabarmendu dute: “3,2 milioi euroan itxi zen salmenta operazioa bertan behera gelditu da eroslea, Diane de L’Espee, erretiratu delako, betirako”. Aurrera begira negoziazio prozesu berri bati ekingo diote eta Ipar Euskal Herriko gizarte osoaren

Desconocen cómo se venderán los terrenos pero creen debería ser gestionado por el Safer

babesa dutela goraipatu dute laborariek. Horrez gain, gaineratu dute ez dakitela lur sail horiek noiz eta nola salduko diren baina irtenbiderik egokiena lurrak Saferrek eskuratzea litzatekeela uste dute: “Laborariek laborantza lurrak prezio zuzen batean erosteko zailtasunak dituzten garai huntan, prezio ikaragarrietan egiten diren salmentak ez gaituzte axolagabe utzi behar”.



DONOSTIAN KONTXAKO HONDARTZAN ERRAUSTEGAIEN KONTRA EGINDAKO MANIFESTAZIOAREN IRUDIA

Erraustegiaren kontrako manifestazioa egin dute irailaren bigarren igandea

Erraustegiak 200.000 tona hondakin erretzeko ahalmena du, baina Gipuzkoan 132.000 tona sortzen dira soilik

[10]

Pasa den irailaren 12an, Kontxako estropadekin batera, urtero legez Erraustegiaren Kontrako Mugimenduak manifestazioa egin zuen Alderdi Ederetik abiatuta Kontxako hondartzako pasealekuraino. “Bada urtebete baino gehiago

**Aunque la incineradora
tenga capacidad de quemar
200.000 tn, en Gipuzkoa solo
se producen 132.000 tn**

El pasado 12 de septiembre, coincidiendo con las regatas de la Concha, el Movimiento en Contra de la Incineradora de Zubietta realizó una manifestación que partió desde Alderdi Eder hasta el paseo de la playa de la Concha para denunciar que no es necesaria dicha infraestructura y se debe reciclar.

Donostiako erraustegia zaborrak erretzen hasi zela eta tartean gertatu dira suteak, Arkaitz erreka bizitza guztia suntsitzea, eta abar... Baina egoera honetan ere erraustetaren aurkako borroka ez da amaitu. Askotan aipatu dira erraustetarik dituen arriskuak: osasuna, ingurumena, ekonomia... Azken hilabete eta urtetan denon ahotan dabilen klima larrialdia azpimarratuko

dugu oraingoan. Donostiako erraustegiak, beste guztiek bezala, erretzen duen zabor kiloko CO₂ kilo bat isurtzen du; beraz, bere osotasunean funtzionatzen ari denean, urtean 200.000 tona CO₂ isuriko ditu atmosferara”, adierazi dute Erraustegiaren Kontrako Mugimendutik. Aipatu azpiegiturak atmosferara isuritako CO₂ kopurua kontuan hartuta, ‘Gipuzkoako Ingurumen Gunea’ izendatzea ez dela egokia adierazi dute.

“Aipatu beharrekoa da erraustegiak urtean 200.000 tona zabor erretzeko gaitasuna duela eta 2020an Gipuzkoan 132.000 errefusa sortu zirela. Hauek TMBtik pasa ondoren, hainbat material berreskuratu eta hezetasuna kenduta, 100.000 tona baino gutxiagoan gelditu ziren. Beraz, hasieratik bi labeetako bat soberan dago eta beharrezkoa duten zaborra osatzeko hondakin industrialak, lehen Zaldibarko zabortegira eramaten zirenak, erretzeko asmoa agertu dute agintariek”, salatu dute mugimenduko kideek.

Erraustegiaren Aurkako Mugimendukoek azaldu zuten Gipuzkoan sortutako 132.000 tona errefusen zati bat Donostiakoak zirela, 48.000 zehazki. Udaleko talde guztiekin elkartu ondoren, eta haiek emaitza txarrak zirela aitortuta ere, “garbi geratu da gaikako bilketaren arduradunek ez dutela epe laburrean inolako pausorik emango”.



Segurako Ondarre gaztandegiko gazta izan da onena Ordizian

Eneko Goibururen gazta erdia 9.400 euroren truke eskuratu du Zaragozako Hotel El Cisnek enkantean

Iaz gertatu bezala, aurten ere Covid-19ak baldintza du Ordiziako Idiazabal Jatorri Izendapeneko 48. lehiaketa ospetsua. Frontoian goizean goizetik aipatu lehiaren parte hartuzuten 45 gaztak izan ziren. Aurkeztutako gazten artean, 27 zuriak ziren eta 18 ketuak.

Urtero legez, irabazleak eguerdiko 14:00ak gertu zirela aurkezten hasi ziren. Hirugarren postuan, Beñat Egaña Mutrikuarra gelditu zen, Goienetxe gaztandegikoa. Bigarren postuan, Olatza gaztandegiko Joseba Insausti. Eta lehenengo postuan, berriz, Segurako Ondarre gaztandegiko Eneko Goiburu. Goiburu ez da bere sendiko lehen belaunaldia Ordiziako lehiaketa irabazten duena, izan ere, aurretik bere amak eta aitona eskuratu baitzuten lehen saria.



ENeko GOIBURU, ONDARRE GAZTANDEGIKO GAZTAGILEA

9.400€, GAZTA ERDIA

Goiburuk egindako gazta erdiaren

enkantean ere ez zen nolanahiko diru kopurua bildu, izan ere, 9.400

euro ordaindu baitzituen Zaragozako El Cisne Hotelak.

[11]

Zeraingo Basozabal gaztandegia izan da garailea Legazpiko Artzain Egunean

Irailko lehen igandean Legazpin hogeita hamazazpigarren Gipuzkoako Ardi Gazta Txapelketan Zeraingo Jabier Muñoaren gaztak eskuratu zuen lehen postua. Horrela, Basozabal gaztandegiak zuzenean lortu du Euskal Herriko Idiazabal Gaztaren txapelketarako txartela. Zeraindarrarekin batera lehen hamar sailkatuek hartuko dute parte aipatu lehiaren.

Bestetik, Urtatzako zelaian 52. Artzain Txakur Txapelketan lau artzainek hartu zuten parte, eta guztietan onena, Jabier Zubiaurreren 'Mendi' txakurra izan zen, eta atzetik Aitor Tatoren 'Nabar' gelditu zen.



Sailkatuak

Lehen hamar sailkatuek Euskal Herriko Idiazabal gaztaren lehiaren parte hartuko dute:

- >> 1. **sailkatua**-Basozabal
- >> 2. **sailkatua**-Ondarre
- >> 3. **sailkatua**-Goienetxe
- >> 4. **sailkatua**-Olalde
- >> 5. **sailkatua**-Olatza
- >> 6. **sailkatua**-Gaztañaditxulo
- >> 7. **sailkatua**-Beizama
- >> 8. **sailkatua**-Troskaeta
- >> 9. **sailkatua**-Intzartzu
- >> 10. **sailkatua**-Baztarrika



JABIER MUÑOA, IRABAZLEA

Fermín Gorraiz y Patxiku Irisarri, elegidos presidente y secretario de EHNE-Nafarroa

“Nekazaritza nekazarion esku”, lema del pasado VII Congreso

Fermín Gorraiz Etxamendi, ganadero de vacuno de Itoitz, y Patxiku Irisarri Elizagoien, ganadero de ovino de Etxalar, fueron elegidos como nuevos presidente y secretario general, respectivamente, de EHNE-Nafarroa durante el VII Congreso del sindicato, que se celebró en la Casa de Cultura de Artika el pasado 1 de octubre, bajo el lema “Nekazaritza nekazarion esku - La agricultura en nuestras manos”.

Se ompleta la nueva Ejecutiva con seis vocales: Josu Jorajuria Baztarrika (ganadero de ovino y elaborador de quesos de Donamaria), Javier Osés Otxandorena (cerealista de Lezaun), Patxi Encaje Araña (ganadero de ovino de leche y vacuno de Hiriberri-Aezkoa), Antonio Alba Baya (agricultor de Cortes), Diego Alonso Moreno (agricultor de Alesbes) y Alberto Benito Martínez (fruticultor de Sartaguda).

Todos ellos conformaban la única candidatura que se presentaba para renovar el órgano que dirigirá el destino de EHNE-Nafarroa durante los próximos cuatro años y fueron ratificados por amplia mayoría del más de un centenar de afiliadas y afiliados que participaron en la cita.

En la nueva Ejecutiva hay representantes del sector primario de las diferentes zonas de Nafarroa

Durante dicho Congreso, que se ha tenido que ir retrasando por espacio de un año, como consecuencia de la pandemia, también se aprobaron sendas ponencias sobre funcionamiento interno y política agraria, a propuesta de la Ejecutiva saliente, que contaron con la

incorporación de un total de diez enmiendas aprobadas durante el proceso congresual, las cuales sumaron alguna idea añadida, sin variar el fondo y las ideas principales. Ambas ponencias deben ser la hoja de ruta del sindicato en Nafarroa durante los próximos cuatro años.

INFORME SINDICAL

Del mismo modo, se desglosó el informe sindical correspondiente al periodo entre 2016 y 2020, exposición que corrió a cargo del anterior presidente, Imanol Ibero Azkarate, en el que se detalló todo el trabajo que los responsables y técnicos de EHNE-Nafarroa han realizado durante esos años y que contó también con el respaldo de una amplia mayoría de los presentes. Posteriormente, se abrió un turno de intervenciones de la afiliación, al obje-



LA NUEVA EJECUTIVA ESTÁ COMPUESTA POR OCHO MIEMBROS DE DIFERENTES ZONAS DE NAFARROA

to de aportar sus reflexiones, en el que se pusieron sobre la mesa algunas carencias en la defensa de sectores concretos o en lo referente a la participación de la mujer y el colectivo LGTBI dentro del sindicato en particular y del sector primario en general.

Finalmente, se celebró el Acto de Clausura, en el que tomaron parte representantes de ELB y EHNE-Konfederazioak. Por parte de esta última, Garikoitz Nazabal Etxabe, también presidente de EHNE-Gipuzkoa, alertó del “goteo sangrante de cese de explotaciones”, fruto de la situación actual de los mercados y de la existencia de macrogranjas, como la de Caparrosa, por lo que demandó políticas fiscales,

En el Acto de Clausura

participó la consejera Itziar

Gómez y representantes de ELB y EHNE-Konfederazioak



ALGO MÁS DE UN CENTENAR DE AFILIADAS Y AFILIADOS PARTICIPARON EN EL CONGRESO

medioambientales y agrícolas que puedan frenar dicha tendencia.

En este sentido, la consejera de Desarrollo Rural y Medio Ambiente, Itziar Gómez, destacó la sintonía que existe entre su Departamento y EHNE, al coincidir en la defensa del modelo de explotación familiar y resaltó el “importante” papel que cumplen las organizaciones agrarias para “transmitir la problemática del sector”. Avanzó, además, que se va a poner en marcha un “ambicioso” PDR “para minimizar el impacto negativo de la PAC debido al modelo de aplicación del primer pilar”.

Por último, los recién elegidos presidente y secretario general de EHNE-Nafarroa intervinieron, en castellano y euskara, respectivamente, para denunciar la paradoja de que “somos la base de la cadena alimentaria” y, en cambio, esa responsabilidad no se corresponde con el crecimiento del sector, sino más bien al contrario, la continua desaparición de explotaciones.

“Hace unos días hablábamos del lobo, pero ahora mismo nos preocupan más los lobbys que nos acechan día a día”, criticaron. “Por eso pedimos a las dife-

rentes administraciones que pongan límites al tamaño de las explotaciones, algo que va en consonancia con los valores de explotación familiar que defendemos”, añadieron. También a los excesos que se producen en la cadena alimentaria, en la que quienes “acaparan el beneficio son las grandes cadenas y grupos de inversión”.

Por último, exigieron un reparto “más justo” de la PAC, “conscientes de que estamos perdiendo una oportunidad única para cambiar el actual sistema de distribución de ayudas”.

[13]



Víctor Pérez Agrícola S.L.

Concesionario oficial Agrícola y Jardinería

Orkoien T: 948 30 38 09 - Tafalla T: 948 70 39 27 - Tudela T: 948 82 22 39 - Vitoria T: 945 10 23 20

www.victorperezsl.com

Descarga aplicación móvil : VP Agrícola



FONDOS DE INVERSIÓN

Te llamamos por tu nombre

En Caja Rural de Navarra sabemos cómo te llamas y qué necesitas.

Marcela

MARCELA ES PROPIETARIA
DE UNA LIBRERÍA EN PAMPLONA

Por eso, podemos ofrecerte el fondo de inversión que mejor se adapta a tu forma de ser y de hacer las cosas.

A tu nombre.



**CAJA RURAL
DE NAVARRA**

En los Fondos de Inversión, ni el capital invertido ni la rentabilidad están garantizados. El valor de las inversiones en fondos está sujeto a las fluctuaciones del mercado.

Esta información tiene carácter comercial y en ningún caso constituye una oferta, recomendación de suscripción, ni asesoramiento financiero en materia de inversión. La información contenida en el mismo no sustituye a la documentación legal que deberá consultar antes de adoptar una decisión de inversión. El folleto de los Fondos y el documento con los datos fundamentales para el inversor pueden ser consultados en las oficinas de Caja Rural de Navarra, en www.cajaruraldenavarra.com y en la CNMV. Gestora: GESCOOPERATIVO S.A.S.G.I.I.C. Depositaria: Banco Cooperativo Español.



Entra en vigor la obligatoriedad de los certificados digitales para personas jurídicas

UAGA informa que será imprescindible a la hora de solicitar ayudas

Desde UAGA recordamos que ya ha entrado en vigor la obligatoriedad de que cualquier empresa agraria que no sea persona física debe contar con un certificado digital para poder realizar todas las comunicaciones con las distintas administraciones.

Cualquier tramitación debe ser realizada por vía telemática, sin existir la posibilidad de gestión en papel. Esta obligatoriedad atañe a las personas jurídicas y a las entidades sin personalidad jurídica (entre ellas, las sociedades civiles o entidades de titularidad compartida).



WEB DE IZENPE.

Los dos certificados electrónicos más habituales son el de IZENPE, cuya solicitud se tramita a través de Zuzenean; o el de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre (FNMT), dependiendo del Ministerio de Hacienda. Su obtención puede dilatarse varios días.

En el caso de las personas jurídicas y las entidades sin personalidad jurídica es imprescindible la posesión de un certificado digital para poder solicitar ayudas, como por ejemplo, las relativas a minimis de la Diputación Foral de Álava, que acaban de cerrar su plazo de presentación.



KIWI: el valor seguro de un líder a2a2

- Altas producciones con muchísima grasa.
- Extraordinarias ubres y muy buenas patas.
- Vacas longevas y resistentes a las mamitis.

Akilia Kiwi et Kingboy x Snowman x Baxter



GEN-1-BEQ SNOWMAN AKILIA ET (EX-91)
Madre de KIWI

(NOVEDAD)



aberekin

Alta Fertilidad
Genética de Confianza

www.aberekin.com

**‘EMAKUMEA ZUTARRI’****LEHEN SARIA - PRIMER PREMIO.**

Egilea / Autora: Ainhoa Altuna

‘Funtsezkoak’ diren argazki ugari iritsi dira

Eskerrak eman behar dizkizuegu Ardatza osatzen dugun guztion partetik, IX. urtez jarraian, lehen sektorearekin zerikusia duten argazkiak bidaltzen jarraitzen baituzue. Asko izan dira parte hartu dutenak. Hamaika argazki saria merezi dutenak, baina horien guztien artean hirurentzako soilik daude sariak.

[16] Lehen saria Ainhoa Altunak lortu du ‘Emakumea zutarri’ irudiarekin. Atzetik, Ioritz Aizpuruk jarraitu dio

‘Berrikuntzekin batera, oinarritzkoak’ argazkiarekin. Azkenik, Carlos Herranek eskuratu du hirugarren postua, ‘Contribuyendo a la sostenibilidad de la humanidad’ lanarekin. Disfruta itzazue sariak!

GRACIAS POR PARTICIPAR

Tenemos que agradecerlos de parte de todos y todas las que formamos Ardatza que, por noveno año consecutivo, sigáis enviando fotos. Han sido muchos y muchas las que han

participado. Todas merecedoras del premio fotográfico, pero sólo hay premios para tres.

El primer premio ha sido para Ainhoa Altuna con la imagen ‘Emakumea zutarri’. Ioritz Aizpuru ha conseguido el segundo premio con la foto de ‘Berrikuntzekin batera, oinarritzkoak’. Y por último, Carlos Herrán se ha hecho con el tercer puesto con ‘Contribuyendo a la sostenibilidad de la humanidad’. ¡Disfruten los premios!

**‘BERRIKUNTZEKIN BATERA, OINARRIZKOAK’****BIGARRREN SARIA - SEGUNDO PREMIO.**

Egilea / Autor: Ioritz Aizpuru



Sariak/ Premios

› IX. Ardatza Argazki Lehiaketa
/IX. Concurso Fotográfico
Ardatza

›› **Lehen saria/ Primer premio** -
Gainkoborda nekazal turis-
moan egonaldia/ Estancia
en el agroturismo
Gainkoborda

›› **Bigarren saria/Segundo
premio** -Gurdiko produk-
tuen saskia/ Cesta de pro-
ductos de Gurdi

›› **Hirugarren saria/Tercer pre-
mio** -Gurdian ibilaldia/
Paseo en carreta

‘CONTRIBUYENDO A LA SOSTENIBILIDAD DE LA HUMANIDAD’

HIRUGARREN SARIA - TERCER PREMIO.
(Eskubiko irudia- Imagen de la derecha)
Egilea / Autor: Carlos Herrán.



[17]



‘QUIERO SER COMO TÚ’

(Beheko irudia-
Imagen inferior)
Egilea / Autor:
Juan Luis Romero



1- HEMENGO KOLOREAK

Egilea / Autora: Mónica Alcalde Eguizabal.

2- ESENCIALES, MEJOR AFORTUNADOS

Egilea / Autora: Natalia Villalobos Bruna.

3- LURRA ESKUAN

Egilea / Autora: Joseba Barrenetxea Altuna

4- ALPACAS DE PAJA RECOGIDAS JUNTO A GIRASOLES

Egilea / Autoar: Lourdes Etayo Ortiz de Orruño.

5- AMANECER EN LOS RASTROJOS RURALES EN JULIO

Egilea / AUtor: Carlos Herrán Salvidea







IRUDIAN, SAGASTIAK

Sagastietan loraldia luzea izan da eta sagar asko eta kalitatezkoa espero da

Euskal Sagardoa egitera bideratutako sagastietatik bost milioi kilo sagar biltzea aurreikusten dute

[20]

Irailaren hasieran Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko ordezkariak eta Gipuzkoako Sagardogileak aurtengo sagar uztaren aurreikuspena aurkeztu zuten Donostiako Trinitate plazan. Aurtengoa sagar urtea dela nabarmendu zuten. Bai kalitateari

Esta siendo diferente la maduración de la manzana en la costa y en el interior

dagokionez, baita kopuruari dagokionez ere, uztar egokia izango dela gaineratu zuten. “Sagar mota gutxi batzuk aurreratu diren arren, irailaren bukaera alderako sagar gehienak helduko dira”, zehaztu zuten ordezkariak. Era berean, Euskal Sagardoa egiteko bideratutako sagastietan, batzuek beste, bost milioi kilo sagar biltzeko dituztela aurreratu zuten ordezkariak.

